

Oztopoak gainditu, konpromisoak sendotu, aukerak baliatu

Euskal Gizartearen Garaia

Ekainak 30 - Uztailak 1eko ihardunaldirako

Por el diálogo
y la distensión

**EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA**



Langilegoarekin bestelako gizartea

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Ihardunaldiaren helburuak eta esanahia

1. Ekainaren 30eko goizetik uztailaren 1eko eguerdira arte egingo dugun itxialdi eta baraualdira ELAko zuzendaritza organoetako kide eta koadro artean mila lagun bildu gara Bilboko Erakustazokan. Ihardunaldiaren goiburuek adierazten dute bilkura honetan hausnartu eta aldarrikatu nahi duguna: “Euskal presoak Euskal Herrira - Por el diálogo y la distensión - Langilegoarekin bestelako gizartea”.
2. Ekitaldi hau batik bat gure sindikatuko kide eta ingurukoei dago zuzenduta. Baina erakunde sindikal nagusi garen aldetik gure hausnarketa eta asmoak langile-klase eta gizarte osoari helarazteko eskubidea eta ardura ere badugulakoan gaude, are gehiago bizi dugun egoera zail eta zalantzaz betetako honetan.
3. Gure hausnarketa lan munduaren esperientzia eta helburuetatik abiatzen da eta hortik abiatuta aldarrikatzen ditugu gure eta eskubide nazionalak. Langileok prozesu honetan zeresan handia dugu, baita gauzak ikusteko modu berezia, klase-interesak eta lehentasunak ere; hori guztia justizia soziala muin-muinean duen eredu batean mamitzen da.
4. Bilkura honen erdigunean presoan auzia dago, eta espetxe-politika aldatzeko eskaera, beren eskubideak errespetatu daitezkeen, pertsona hauek politika-jokuan fitxa huts legez erabiltzeari utzi eta senideek zigor bidegabea gehiago jasan behar ez dezaten. ELAk jarrera hau hainbat arrazoi dela medio erabaki du: legeria, gizabidea, gure gizartearen eskariekiko begirune demokratikoa, distentsiorako ahalegina eta elkarbizitzaren aldeko lana. ELAk konpromiso hau berriro azpimarratu nahi du, eta horren oinarria sindikatuaren aztertze eta erabakiak hartze eta autonomia dugu.
5. Elkarrizketa eta distentsioa ditugu ihardunaldiaren goiburuan. Helburuon alde ELAk aspaldidanik dihardu lanean, eta haietara iristeko gaur inoiz baino behar handiagoa daukagu. Elkarrizketak euskal gatazkaren sakoneko arazoei heltzeko aukera eman behar du. Distentsioak herritar guztien eskubideekiko errespetua bermatu behar du, elkarbizitza eta elkarrizketa erraztu, baita indarrak batzeko behar den giroa sortu ere. Jendeak, iritzi eta pentsamolde politiko ororen gainetik, elkarrizketa nahi du, eta are, eskatzen du. Jendeak bakean bizi nahi du, pertsonen eta ondasunen aurkako erasoak amaitzea, arazoak elkarrizketa eta negoziazio bidez konpontzea, eta gatazka nahiz samina xede politikoetarako erabiltzeari uko egitea.

Gernikako ekitalditik hiru urtetara bizi dugun egoeraren azterketa

6. Konstituzioak, Estatutuak eta Foruaren Hobekuntzak taxututako markoa agortuta zegoela esan zuen gure IX Kongresu konfederalak duela hiru urte. Baieztapen hau izan zen Gernikan 1997ko urriaren 17an egin genuen ekitaldiaren abiapuntu; orduan bi gogoeta plazaratu genituen: blokeo eta inkomunikazio egoeratik irten beharra eta bide zibil eta demokratikoetatik indarrak metatzeko dinamika berriei ekiteko premia,

helburutzat marko juridiko-politiko berria ezartzea harturik, non gure nortasun politiko aintzat hartu eta bermatuko litzatekeen.

7. Gernikako aldarriaren ondorengo hileetan euskal erabakigunearen aldeko indarren arteko inkomunikazioa hausten hasi zen, harik eta erakunde politiko, sindikal eta sozialen multzo zabal batek elkarrizketarako topagune bat eratu zuen arte: Irlanda foroa. Beronek landu zuen 1998ko irailaren 12an sinatu zen Lizarrako Adierazpena (gero honi Lizarra-Garazi Adierazpena izena eman zitzaion). Adierazpena ideia batetik abiatzen da: euskal gatazkaren izaera politikoa da. Ondorioz, gatazkari irtenbide politikoa eman behar zaio, printzipio demokratiko bati jarraiki: Euskal Herriko hiritarrek erabakitzen duena aintzat hartu behar da. Adierazpenak, bestalde, gatazkarekin zerikusia duten aldean arteko elkarrizketa eta negoziazioa proposatzen ditu prozedimendutzat. Adierazpena sinatu eta egun gutxitara, ETAk su-eten aldebateko eta mugagabea erabaki zuen; distentsiorako urrats honek Lizarra-Garaziko Adierazpenean proposaturiko elkarrizketa prozesuei ekiteko baldintza egokiak ekarri zituen berarekin.

8. Alabaina, Espainiako alderdi politiko nagusiek, PP eta PSOEek, Lizarra-Garaziko indarrek luzatutako elkarrizketa eskainteari uko egiteaz gainera bereziki modu oldarkorrean erdeinatu zuten.

9. Oso larria da Gobernu espainolak bakerako bidea urratzeko aukera hori baliatze-ko ahaleginik txikiena ere egin ez izana. Honela argi utzi zuen benetan axola ziona ez zela bakea, bere estatu-eredua zalantzan jar zezakeen edozein eztabaida saihestea baizik.

10. Gobernu espainolak boterearen gehiegizko erabilpena egin du, eta oldarka bera bezain sutsu izan diren hedabideek moldatutako iritziz publikoaren babesean, erasoa areagotu egin du, gatazka politikoa denik ere ukatzeraino; indarrean dagoen marko juridiko-politikoari men egiten ez dion edozein jarreraren legezkotasuna ukatu du; su-etenak sortutako distentsio egoera hondatzen setaz saiatu da, jarrera belizista adieraziaz eta polizia, epaitegiak zein espetxeak jazarpen eta errepresiorako erabiliz; azken buruan ere indar abertzale guztiei egotzi die bortizkeriaren ardura. Testuinguru hortan, PPK eta PSOEek gizartean zegoen tentsioa larritzen saiatu dira, herritarrei etengabe zatiketa eta haustura sozialaren mezuak helaraziz.

11. Beraz, ELAk duela hiru urte egin zuen diagnostiko ezkorra ez da hobetu. Aldiz, orduan salatu genuen PPren eta PSOEren arteko estatu-ituna indarrean dago oraindik; autodeterminazio eskubidea ukatu egiten da, eta bera aipatze hutsa demokraziaren aurkako erasotzat arbuiatzen da; hainbestetan ahotan hartutako Estatutu eta Foruaren Hobekuntzaren markoa eslogan hutsa da, inork ez du harengan sinesten, erakunde eta gehiengo politiko espainolak bat baitatoz hura urratu eta husteko lan-tegian; estatuaren arauak behar adina bider hautsi eta baztertzen dira estatuaren interesak hori eskatzen badu, hots, estatuak abertzale guztien aurka daraman borro-

karen mesedetan.

12. Izatezko salbuespen-egoera honen adibiderik gordinena Nafarroa da. Ez dute zalantzarik egin *anti natura* itun bat ixterakoan, xede oso argiekin: indar abertzaleak politika eta erakundeetan baztertzea; elkarbizitzarako arauak aldatzea, hizkuntz-politikaren garrantzia duten gaietan adibidez, eta uniformizazioa sustatzea, nortasun nafarraren funtsezko euskal osagaia indarra galtzen joan dadin, navarrismoz mozo-rotutako muturreko espainoltasunaren poderioz. Nafarroako erregimen autoritario eta baztertzalea, beraz, aski argigarri da ikusteko estatu-itunak zeinen lotsagabe jokatzen duen eta gutxiengoei zeinen errespetu eskasa dien, erakundeetako egoerak eta gizarte-errealitateak aukera ematen dionean.

13. Dena dela, Aznarren Gobernuak harro agertzen duen "irmotasun demokratikoa" indartsuenaren legea besterik ez da, eta autoritarismoak ez du estaltzen sistema horren izaera hauskorra: batetik, gatazka politikoa kudeatzeko ezinean dabil, eta bestetik, euskal hiritar asko eta askoren borondatea adierazteko bide demokratikoak eskaintzeko ezgauza da. Estatu eredu bakarra dute gogoan, batasun hutsean oinarritutakoa, eta hartara, beste edozein nortasun aldarrikatzea euren nazioaren nortasunari eraso egitea dela uste dute. Beren estatu-ereduaren arabera, trantsizio has-tapenetako gehiegikeria autonomista haiek zuzentzeko ahaleginetan dihardute, eta Euskal Herriko lurraldeetan estatuaren boterea gero eta argiago eta nabariago ager-tarazteko lanean.

14. Estatu autoritarioak ETA aitzakiatzat hartu du eztabaida politikoa saihesteko, eta "euskal auzia" bortizkeria arazo hutsa bailitzan agertarazi nahi du. PPK sentipen nazionalista mindua eta bortizkeriak eragiten duen arbuioa konbinatzen asmatu du, horrela hauteskundeetan etekinak lortzearren. Bide batez, alderdi politiko, sindikatu, iritzi-lider eta hedabideei bere estrategiari itsu-itsuan men egiteko eskatu die, eta bere estrategia euskal auziari borroka antiterrorista legez ekitean datza.

15. Labur bada ere, Estatu frantsesak euskal auziari eman dion erantzuna aipatu beharrean gaude. Erantzun horretan nabariak dira Estatu espainolarekin bat datozen interesak eta elkartasuna. Iparraldeko gizartearen gehiengoak luzatutako departa-menduaren eskabideari behin eta berriz ezezkoa eman dio, erakunde administratibo berezi batek nortasuna bultzako lukeela argudiatuz.

Honek nabarmen uzten du Estatu frantsesaren zentzu demokratikoa oso mugatua dela, izan ere, bere egitura baterakoia zalantzan jar litekeela ikusten baitu; ezin ahaz-tu, bestalde, Euskal Herria eta beste herri batzuren gain inposizio eta azpiratze poli-tikaren bidez ezarritako egitura dela hori.

Egoera berriro blokeaturik dago

16. Onartu beharrean gara Lizarra-Garaziko Adierazpenak talde sinatzaileen artean eta herritar askorengan piztu zituen itxaropen edota usterik baikorrenak zapuztu egin zituela zenbait jarrerak: hor dira PPK eta PSOEk elkarrizketa politikoari emandako ezezkoa, Gobernu espainolak ETAREN su-etenarekiko agertu zuen mespretxua, eta erabaki zuen tentsio politiko eta sozialaren estrategia (bere espetxe-politikaren jarraipena da horren adierazpenik nabarmena). Honetaz gainera, beste oztopo batzuk ere sortu dira, hala nola testuinguru horretan hasitako lankidetzaren prozesuetako zailtasun eta desadostasunak, berehalako emaitzen gabezia edota urria, su-eten luze baten ostean arma bidezko bortxa estratejiara itzultzea. Ez da harritzekoa, hortaz, jende asko etsipenak eta frustrazioak jota egotea.

17. Egoera kezagarri honetan kaltea eta ezegonkortasuna eragiten du ETAK su-etena amaitzeko hartu zuen erabakiak. Estrategia honi berriro heltzeak, kale borrokarekin batera, hasitako prozesuak zalantzan jartzen ditu eta epe laburrean zuzentzeko gaitza izango den atzerapausoa da.

18. Halere, ezin dugu prozesuaren ikuspegi orokorra galdu, ezta eskatzen dituen epeak eta berarekin dakartzan zailtasunak saihestu, eta gutxiago garai hortan egin diren urrats zein saio garrantzitsuak ahaztu. Beraz, ez da etsitzeko unea, ez estrategia zaharkituetara itzultzekoa ere; aitzitik, hutsegiteei erreparatu eta, batez ere, epe laburreko lanean indar abertzaleok kontutan izan beharreko oinarriak eta lehentasunak ezartzea dagokigu.

19. Gure aburuz, behin betiko baztertu behar den estrategietako bat Estatutua lehenatzen saiatzen dena da. Izan ere, aspaldian erabaki baitzuen Estatuak hitzarmen politiko zen aldetik hustea eta arau juridiko legez zuen indarra kentzea; orain itun politiko berri baten oinarri bilakatzeko beranduegi da. Gobernuari eusteko asmo hutsez, egoera politikoaren normalizazioa lortzearren itxitako itun politiko berri batek euskal erabakigunea saihestuko balu, atzera egitea litzateke Lizarra-Garaziko Adierazpenean hartutako gatazkaren konponbidearekiko konpromisoetan, eta hasitako eztabaida amaituaren itxurapean itxi gabe utziko luke.

20. Gure buruari kritika egin behar diogu Lizarra-Garazirekin hasitako prozesuaren kudeaketari eta hartan izan dugun paperari dagokionez. Alderdi politikoaren protagonismoak, beroien arteko harremanen eta gorabeheren oso mendeko jardunak, eta ekimen bateratuaren baldintzak erabat aldatu ziren egoeran kokatzeko zailtasunek erabat mugatu gaituzte: ondorioz, ez dugu asmatu gure jarrera aski argi finkatzen ez eta esparru horretan dinamika sindikal egokia garatzen. Euskal sindikalismoak aurrerantzean autonomoago eta eragingarriago izan behar du; horretarako lehentasuna ekintza bateratua oinarri berrietan finkaturik berriz osatzean datza.

21. Bestalde, ez diogu nahikoa irizten prozesuan Lizarra-Garaziko alderdien esku dauden erakundeek izan duten partaidetzari. Badirudi indar horien arteko akordioen xede bakarra erakunde ahalik gehienetako botereari eta egonkortasunari eustea zela; aldiz, erakunde horiek, beren legezatasun demokratikoaren indarrarekin ez dute distentsiorako eta burujabetza garatzen ekimen eta proposamenak aurkezteko ahalegin handirik egin. Lizarra-Garaziko Adierazpenarekin hasi zen prozesua geldiarazi eta lehertzearen Gobernu espainolak eta estatuko alderdi nagusiek inoiz izan den erasorik bortitza jo dutenean, erakunde horiek lehia politikotik oso aparte geratu dira, eta oldar haren aurkako erantzun politiko eta sozialaren aitzindari izaten ez dute asmatu, edo ez dute nahi izan.

22. Ardura instituzionalek ez dute ezinbestean neutraltasun politikora behartzen; "guztientzako gobernu"ren argudioa medio ez zaie norberaren programa eta ideiei uko egin behar; arras bitxia da, bestalde, halako zerbait soilik abertzaleei eskatzea. PPK edo UPNk boterea sektarismo eta bazterketarako tresna bilakatu dutelarik. Beraz, lotsak alde batera utzirik, indar abertzaleen esku dauden erakundeek prozesu honetan eragin eta konpromiso handiagoa izateko garaia iritsi da.

Abertzaleon lehentasuna, gizarteko sostengua hedatzea

23. Gure lehentasuna burujabetzaren ideia hedatzea da, hau gero eta jende gehiagorentzat aukera erakargarri eta positibo bihurtu dadin. Horixe da gure proiektuak arrakasta izango badu dagokion oinarri eta bermea. Estatuaren estrategiak hau guztiz argi ikusi duelarik, burujabetza-proiektua hedatzea galarazi eta bere esparrua murriztearren ez du zalantzarik egiten: oztopoak ipintzen ditu bidean, euskal gizartea banandutako gizataldetan zatitzen saiatzen da eta funtsik gabeko liskarrak pizten ditu. Ez dago esan beharrik estrategia hau zein arriskutsu eta arduragabea den.

24. Abertzaleon jokabideak guztiz kontrako izan behar du, integrazioarako bideak sustatu eta garatzea alegia. Hortarako, ezinbestekoa da Euskal Herriko errealitate konplexua aintzat hartzea: ezin dugu zatia osotasuna bailitzan hartu, ez talde jakin batzuren ikuspuntu, sentipen edo borondateak gizarte osoarenak bailiran.

25. Euskal Herria, beste edozein gizarte moderno legez, anitza izateak ez du gure asmoak indargabetzea ekarri behar. Aniztasunaren ondorio ezin du izan gizartearen alde batek bere proiektua bertan behera uztea. Aitzitik, aniztasunaren izenean eskatzen dugu aintzat har daitezela proiektu oro gauzatzeko bide demokratikoak.

26. Gizarte anitz honetan abertzaleek ahalegin berezia egin behar dute herritar, gizatalde eta lurraldeen arteko elkarguneak sendotzen dituen oro lantzeko. Estatuaren strategiaren kontrako bidetik joan behar dugu. Gizartean egunez-egun egiten dugun lanak ezeztatu egin behar du estatuaren estrategiak gure legezko aukera demokratikoari egozten dion jite oldarkor, baztertzale eta traumatikoa. Gizartearen zatiketa eta

hausturari aurre eginez gure proiektuak indartu egin behar du integrazioa, elkartasuna sakontzeko baliagarria den oro eta proiektu amankomun bateko partaide izateko nahia.

Gizarteko gehiengoarentzako proiektua

27. Burujabetza proiektu bat aurrera aterako bada, justizia, ongizate eta partaidetza demokratiko handiagoa eskaini behar du. Burujabetza-proiektuak enplegua, lan-baldintzak, babes soziala edota berdintasunari ematen dien lekua garrantzirik gabekoa dela uste duena oker dabil; izan ere, nortasunaren aldarriak nekez bilduko baitu beharrezko sostengua gehiengoarentzat erakargarri datekeen gizarte-eredurik gabe.

28. Ikuspuntu honetatik, oso kezkatzekoa da oro har indar abertzaleek Lizarra-Garazi ostean egin duten kudeaketa politiko-instituzionalaren eduki sozial urria. Batik bat Euskal Autonomia-Erkidegoko gobernuak eta lurralde-erakundeek –gai hauetan gobernu espainolarekiko erabateko sintoniaz jokatu dute– garatu duten kudeaketaren lehentasun eta aukerak askoz ere gehiago asetu dituzte botere ekonomikoak jende xehea baino. Zerga-sistemaren erreforma eta aurrekontu-politikak dira joera horren adibide argiak. Bestalde, lan-harremanen politikaren oinarria elkarrizketa baino areago inposizioa izan da. Honen guztiaren ondorioz, gobernu oso neoliberala dela esatea besterik ez zaigu geratzen.

29. Bestalde, ziur gaude burujabetza proiektuak kudeaketa politikoan eduki soziala baztertzen duen heinean interesa, erakartzeko eta hedatzeko gaitasuna galtzen duela. Horregatik, epe honetan gai sozialak akordio politiko-instituzionalen menpekotzat hartu izanari hutsegitea dela irizten diogu, are gehiago horren ondoren politika antisozialak gauzatzekoan sindikatuen onespina bilatu denean.

30. Baten bati pentsa arazi beharko lioke lehendakariak autogobernuaren funtsezko osagai den Kontzertu ekonomikoaren alde egin zuen deialdiarekin soilik interes ekonomikoen eta establishment instituzionaleko ordezkariak bategiteak; bestalde, zenbait alorretan indar hauen autogobernuarekiko konpromiso eza nabarmena da. Eskatote liteke esparru politiko bat aldezteko zenbait sektoreren atxikimendua, lan-mundua kasu, esparru horretako boterea batez ere beste talde eta interesen onerako erabiltzen denean?

Distentsioa, ezinbesteko baldintza

31. Proiektu batek, gauzatu ahal dadin, jendearen atxikimendua beharrezko badu, garatzeko giro lasaia eskatzen du, non indarra eta mehatxua ez diren nagusi eta topaguneak, elkarrizketa eta ideia zein proposamenen eztabaida erraztuko diren.

32. Honetaz estatua bera inor baino hobeto ohartu da, berarentzat egoerarik erosoena zatiketa eta tentsioarena baitira: hain zuzen, egoera horietan jarrerarik itxien eta irrazionalenak normaltzat hartzen dira, eta eztabaida lasai eta konstruktiboa ia ezinezkoa da. Honi buruz esanguratsua da Gobernu espainolak Lizarra-Garaziren elkarriketa eskaintea eta ETAREN su-etena bera ere erasotzat aurkeztu izana. Esanguratsuak, halaber, itxurakeria bakezalearen atzean estatuak Euskal Herrian hedatuta dituen indar armatuak, zeinen funtzio koaktiboa nabaria den.

33. Egoera polarizatuak mugitu nahi ez dutenen mesederako badira, euskal gatazka konpontzeko elkarriketa bideekiko konpromisoa hartu dugunok eta gizartean burujabetzaren aldeko jarrera hedatzeko lanean ari garenok distentsio eta elkarbizitza giroa behar dugu. Hau dela-eta, ETAK berriro estrategia armatuari ekiteak lankidetzaren prozesuak erabat zailtzen ditu eta gizartean gure asmoak hedatzea ezinezko egiten du. Izan ere, ETAREN erasoak eta kale borrokaren eraginak ekintza bidegabe eta gaitzestekoak dira, eta gainera gizarteko gehiengo zabalak, hots, burujabetza-proiektuaren arrakastarako ezinbesteko diren gizon eta emakume horiek, arbuia egiten dituzte.

34. Egia da mugimendu abertzaleko kide gehienak borroka armatuaren aurka zeudela, baina era berean, hainbat alorretan neke ukalezinez militantzia abertzaleari emanak diren sektore batzuentzat helduleku garrantzitsua izan da. Alabaina, honez gero inertziak gainditzeko garaia eta estrategia hauen egokitasuna berrikusteko garaia iritsi dela uste dugu. ETAK su-etena amaitzeko erabakia iragarri zuenean Lizarra-Garaziko sindikatuok esan genuen moduan, beharrezkoa baita gure historia-ko aro honetatik behin betiko irtetea. Ez du iraganak zertan zama izan beharrik, ez dago zertan eskenatoki kaltegarrietara itzuli.

35. Ondorioz, borroka armatuaren amaia gatazka konpontzeko eta indar abertzaleon garapenerako beharrezko ekarpen legez ulertu behar da. Mugimendu abertzaleak garaitzeko aukera ez du armen estrategian finkatu behar.

Gure proiektuan, gure indarretan, gizarteagan dugu uste osoa

36. Lizarra-Garaziko Adierazpenak eta ETAREN su-etenak zabaldu zuten epealdiak ilusio eta itxaropenez bete gintuen. Aldiz, bake-prozesua aurrera eramateko oztopoak eta indar abertzaleen arteko lankidetzan agertu diren zailtasun eta kontraesanek nolabaiteko etsipena eragiten dute, eta hori gainditu beharra dago.

37. Daukagunari duen balioa aitortu behar diogu. Burujabetzaren aldeko jarrera gizarteko gehiengoak sostengatzen du, eta sostengu hau hazi egingo da, baldin eta jende gehiagoren beharrian eta interesei erantzun egokia emateko gauza bagara.

38. Abertzaletasunak, bestalde, gizartean sustrai biziak ditu, alor askotan finkatuta dauden erakunde, mugimendu eta taldeek osatutako sare zabala (gizartea, politika,

sindikatuak, kultura, kirola, talde alternatiboak...), militantziarako gaitasun ezaguna duena; bere lanaren poderioz duen hedapena eta indarra hobetzeko modua badago. Daukagun aukera nagusia gizartean gure mezuak duen oihartzuna da.

39. Bestalde, indar abertzaleek erakundeetan ordezkari handia dute, eta hori erabakitasunez, lotsarik gabe, gatazkaren konponbiderako faktore eraginkor bilakatu behar da, baita burujabetzaren aldeko joera hedatu eta normalizatzeko ere. Egungo erakundeek, gainera, errealitate horri gure herritik kanpora ahotsa eman behar diote, eta haren ordezkari izan.

40. Burujabetzaren aldeko prozesua soziala da, indarrak metatzeko prozesua, bere epeak eta pausoa dituen; hauek batez ere gizartean egiten den lanaren neurri, bizitasun eta egokitasunaren arabera izango dira. Horregatik irizten diogu hutsegite larria dela garrantzia formula edo marko instituzional berriei emateari, betiere hauek gizartearen errealitatean nahikoa sustrai ez badute, eta proiektu horiek duten pisua eskasa bada.

41. Gure indarra ez datza goi mailatan, erakunde politiko handietan, botere ekonomikoetan edota komunikabide ahalguztidunetan. Indarra batez ere gizartean dugu, horixe da gure aukera, gure indargunea, eta gizartean egin behar dugu batez ere lan, ilusioz, jarrera agonikorik gabe, gure proiektuan eta jendeagan uste osoa dugularik.

42. Egitasmo eta proposamenen arteko lehia demokratikoa gizartean izan dadin ahal legin tinkoa egin behar dugu, eta lehia hori bereziki gogorra izango da jarrera anti-demokratikoetan daudenekin: gure herriari bere etorkizuna erabakitzeko aukera ukatzen diotenekin, Euskal Herriari nor izatea zor zaiola ukatzen dutenekin, alegia.

43. Abiatu den prozesu honetan ez dago jagolerik. Inork ez digu haren garapen egoia, ez arrakasta bermatzen. Guri ikuspegi orokorra kontutan izanik lana taxuz eta modu egokian egitea dagokigu, idazteke dagoen etorkizun bat mamitzeko asmoz. Ziur gaude, dena dela, gizarte batek bere buruaren jabe izatea erabakitzen duenean aurkitzen dituela erakundeak aldatzeko une eta bideak.

Ondorioak

1. Konstituzioak, Estatutuak eta Foruaren Hobekuntzak taxututako markoak porrot egin du behin betiko, euskal auziari irtenbidea eman eta normalizazio politikora iristeko bide den aldetik. Marko horri arrazoi absolutu moduan eusteak zerbait adierazten du: Estatua ez dela gatazkaren konponbidea eta normalizazioa lortzeko gauza.
2. Euskal gatazkaren konponbideak demokrazia areagotzetik etorri behar du, hots, Euskal Herriko biztanleek izan behar dute beren etorkizuna erabakitzeko azken hitza, eta inplikaturako estatuak erabaki hori errespetatu egin behar dute (Lizarra-Garaziko Adierazpena). ELAk berretsi egiten du Lizarra-Garaziko Adierazpenaren balioa, eta beronetan euskal gatazka elkarrizketa eta negoziazio bidez konpontzeko proposamena.
3. Estatuak euskal gatazkaren konponbidea jorratzeari setaz uko egiten diotenez, gizartean elkarrizketa eta negoziazioaren aldeko dinamika bizi, zabal eta jarraitua sustatu beharra dago. Dinamika horretan eskuhartze argia izan behar dugu talde politiko eta sozialok, euskal instituzioek izan behar duten bezela. Presoen eskubideen defentsak izan behar du eskuhartze horren adierazgarri.
4. Gatazkaren konponbidea eta burujabetza-proiektuaren garapena prozesu sozialak dira, eta arrakasta lortuko badute Euskal Herriko biztanleen atxikimendu eta partaidetza funtsezkoa da.
5. Burujabetza asmoek herritarren artean lor dezaketen oihartzuna indar abertzaleek kudeaketa politiko eta sozialean proposatu eta gauzatzen duten gizarte ereduaren arabera izango da. Beharrezko sostengua soilik proiektu aurrerakoi batek bil dezake, oinarritzat justizia sozial handiagoa, partaidetza eta elkartasuna harturik.
6. Euskal Herriaren eskubide nazionalaren izenean pertsonen oinarritzako eskubideak urratzen dituztenek burujabetza-proiektua gizartean hedatu eta zabaltzeko estrategia geldiarazi egiten dute. Beharrezkoa da, premiazkoa, ETAk ekintza armatuak uztea eta kale borrokaren moduko bortxa estrategiak baztertzea.
7. Burujabetza-proiektuak batetik gizartea eraldatzeko asmo baten goranahi utopikoa behar du, eta bestetik, proiektua eraikitzeko den errealitatearen ezagutza hurbil eta zehatza. Burujabetza egitasmoak garapen betea izatekotan Euskal Herriaren izaera konplexu eta asimetricoa aintzat hartu behar du, eta gertuko lana egin, errealismoz eta jarraipenez.
8. Gure aurkarien indarra eta prozesuko oztopoak ahaztu gabe, ideia eta jarreraren eztabaida eta norgehiagoka demokratikoa ausardiaz bultza behar ditugu. Horretarako abiapuntutzat gure indarrak eta proiektua harturik, berau baita demokrazia, hurbiltasuna, justizia eta partaidetzari hobetzeko biderik egokiena.

Euskal presoen eskubideen alde

Komite Nazionalaren Ebazpena

ELAk, bakarka edota beste erakunde sindikal, sozial eta politikoekin batera, sakabanatutako preso politikoen egoera larria salatu izan du. Uste dugu kartzeletako politikaren hari nagusiak ez direla batere aldatu sakabanaketari, zigorraren hiru laurdenen betetzeagatik espetxetik ateratzeari eta preso gaixoekiko arretari dagokionez.

Aldiz, gure ustez, gobernu espainiarrak bere neurrien gogorkeria areagotu egin du. Inmobilismo akusaziopean aurkitzen zelarik, komunikabideen aurrean, ehun bat preso hurbiltetaren itxurak egin zituen; zigorra bete eta gero askatasuna lortu duten presoek aurkako kanpaina bortitzak egin ditu; presoek lagunen eta, batez ere, haien senideen etsipena areagotzen saiatu da; euskal legebiltzarrak eta beste instituzioek presoak hurbiltzeko egin duten eskaerari ez dio jaramonik egin; eta euskal gizarteak "Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean adierazitako borondateari muzin egiten jarraitzen du.

ELArentzat, egoera hau, onartezina ez ezik, zuzenbide-estatuaren guttiz aurkako da. Botere politiko, judizial eta polizialen arteko solidaritzak, legedia eta giza eskubiak zapaltzeko kezka faltak, eta gobernu espainiarrak eta frantseak instituzioen eta gizartearen eskaerei zuzentzen dizkien arreta hutsak garbi erakusten dute euskal gatazkari buruz egiten duten irakurketa: bi gobernuentzat, euskal presoek sakabanaketa gatazkaren tratamendu politikoa behin betiko atzeratuko duen funtsezko tresna politiko bat da.

Horregatik, ELAk zera eskatzen du:

- sakabanaketaren amaiera; justiziagatik eta pertsona presoekiko eta haien senideekiko gizatasunagatik.
- presoek buruz indarrean dagoen legeriaren eta lege hauek aurreikusten dituzten onura guztiak betetzea (preso gaixoei eta kondenaren hiru laurdenen betetzeagatik espetxetik ateratzeari buruzkoak)
- giza eskubideen errespetua. Askatasun ezarekin batera, presoek eta haien senideek beharrezkoa ez den sufrimendu gehiago paira ez dezaten (lekualdaketak, entregak, tratu txarrak, gaixoekiko arreta eza, inkomunikazioak, zigorrak, intimitatearen hausteak...)
- zigor-erakundeek irekitasuna eta gardentasuna. Behar beharrezkoak dira gartzela barruan gertatzen denaren gizartearen egiaztapen demokratikorako bermeak garatzea. ELAren aburuz, presoak Euskal Herriratzeak gardentasun hori hobeto ahalbideratuko luke.

Giza duintasunari eta oinarrizko eskubideei buruz ari garenez, aipaturiko arazo guztiek berehalako irtenbidea behar dute, ez baitira, inola ere, eztabaida politiko batetarako gai negoziagarriak.

ELAk badaki salaketa ez dela nahikoa gobernu espainiar eta frantsesaren aldaketa lortzeko. Gure aldetik, urteetan, indar abertzale eta demokratikoen arteko elkarlanean eta batuketaren aldeko lana egin dugu. Honek jarraitu behar du gure lanaren jomuga izaten. Badakigu, ordea, erreibindikazio honetan, atxikimendu mailari buruz gizartean lor daitezkeen emaitzak aldakorak izango direla abagune ezberdinen arabera, hain zuzen, gizarte tentsionamenduarekin eta polarizazioarekin zer ikusi daudenak.

Esparru sindikalean ez diegu gure aukerei balio handiegia eman behar, baina gure indarguneak baliatu egin behar ditugu (gure errealitate soziala, lurraldean lortutako zabalpena edota gure zilegitasun politikoa, alegia), lan munduaren eta gizarte osoaren presoen Euskal Herrira ekartzearen aldeko konpromezua areagotu eta indartzeko.

Gure izaeratik abiatuta, langileriaren erakunde garenez, presoen erreibindikazioan gure estrategia propioa definitu, gure ekimenaren oportunitatea aztertu eta gure funtsezko lanarekin (langilegoaren defentsa, alegia) bateragarri daitekeena hausnartu behar dugu mementu bakoitzean.

Azkenik, eta azterketa honetatik abiatuta, ELAk

- "Euskal Presoak Euskal Herrira" erreibindikazioa gero eta zabalago izan dadin beharrezkoa diren elkarlanerako baldintzak berreskuratzeko lana egingo du.
- Ebazpen honetan azaltzen den azterketa kide guztiei helaraziko die
- Gure esparruan, lan munduan alegia, ekimen konkretuak aurrera eramango ditu
- Espainiar eta frantses gobernuari ebazpen hau helaraziko die.

Bilbon, 2000ko uztailaren 1an